

Trebiñuko

Konderrian

birzikla
tzearekin



ordezkatu
berreskuratuz

murriztu



bererabili



birziklatu



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN





Aldaketa handiak eragiten dituzten keinu txikiak dira.

Gure lurraldea zaindu behar dugu, etorkizuneko belaunaldiak ingurune natural pribilegiatu honetaz goza dezaten.

Zure lurraren alde, Lurraren alde, errespetatu, birziklatu...

aurkibidea

EDUKIONTZI HORIA: Plastikozko eta metalezko ontziak

3

EDUKIONTZI URDINA: Papera eta kartoia

4

EDUKIONTZI BERDEA: Beirazko ontziak

5

GAINERAKOEN FRAKZIOAREN ETA FRAKZIO ORGANIKOAREN EDUKIONTZIA:

6

- Birziklatu ezin diren hondakinak **6a**
- Etxeko konpostajea..... **6b**
- Landare-hondakinak..... **6c**

EDUKIONTZI LARANJA: Etxeko olioak

7a

EDUKIONTZI GORRIA: Ehun-gaiak eta etxeko gauza txikiak

7b

TAMAINA HANDIKOAK ETA ETXEKO GAUZAK

8a

GARBIGUNEA

8b

BESTELAKO BILKETAK:

Pilak eta bateriak, led bonbillak eta fluoreszen-
teak, sendagaiak eta boligrafo zaharrak

9

Birziklapena Trebiñuko Konderrian

Hondakinen kudeaketa da administrazio publikoek herritarrei zerbitzua emateko egiten duten oinarrizko jardueretako bat. Kudeaketa horrek hainbat ondorio ditu: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa; kontrolatu eta hobetu egin behar dira, pertsonen bizi-kalitatea zaintzeko eta ingurumenaren gaineko eraginak minimizatzen.

Udalak, hondakinen kudeaketa eraginkor eta jasagarria lortzeko xedez, udalerriko herritar guztien laguntza behar du hori gauzatzeko. Guztion artean lor dezakegu. Urrats hauek jarraitu besterik ez duzu:

1. Ordezkatu, murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu.

2. Bereizi hondakin bakoitza behar bezala etxean, bere tipologiaren arabera. Gehienak birziklatu egin daitezke, lehengaiak berreskuratzeko. Gogoratu hondakin arriskutsuak ere sortzen ditugula, eta garbiguneetara eramane behar direla.

3. Kontsultatu birziklatze-gida hau. Argitu hondakinei buruzko zalantza guztiak eta non utzi behar diren.

Hondakinen %90 birziklatu egin daitezke, baldin eta beste batzuekin nahasten ez badira eta edukiontzi egokian uzten badira. Birziklatzeko gakoa da hondakin desberdinak **ez nahastea**.

Horretarako, hondakin hauek gaika biltzeko edukiontziak daude Trebiñuko Konderriko udalerrian:

- **ONTZIAK:** edukiontzi horia.
- **PAPERA ETA KARTOIA:** edukiontzi urdina.
- **BEIRA:** edukiontzi berdea (iglua).
- **OLIOA:** edukiontzi laranja.
- **EHUN-GAIAK:** edukiontzi gorria.

Gainera, hondakin hauek bereizita utzi behar dira:

- **INAUSKETA ETA BELAR HONDAKINAK:** bilketa-eremu berriak.
- **Altzariak, tamaina handikoak eta hondakin elektriko zein elektronikoak:** gaitutako guneak.
- **PILAK:** piletarako kutxak.
- **LUMINARIAK:** bonbilla fluoreszenteetarako eta led bonbilletarako kaxak.
- **ETXEKO HONDAKIN ARRISKUTSUAK:** garbiguneak.
- **SENDAGAIK:** farmaziak.



Gida honetako atal bakoitzean aurkituko dituzu etxeko hondakinen tipologiari eta kudeaketari buruzko xehetasun guztiak. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi **ETXEKO ETA MERKATARITZAKO HONDAKINAK BILTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA** (www.condadodetreviño.es/content/residuos).

3 edukiontzi horia



PLASTIKOZKO ONTZIAK: plastikozko botilak (ura, zukuak, olioak, freskagarriak, esnekiak, ozpina...), elikadurarako plastikozko ontziak (maionesa, ketchupak, jogurtak, aurrez prestatuak...), plastikozko bilgarriak (opilak, azukrea, gailetak, zerealak, gozokiak, hestebeteak, arrautzak...), plastikozko sareak (laranjak, lekak, intxaurrak...), norbera garbitzeko produktuen plastikozko ontziak (kolonia, xanpua, hortzetako pasta, kremak...), garbitzeko produktuen plastikozko ontziak (xaboia, leungarria...), plastikozko estalki eta tapoiak, poliestirenozko ontziak eta erretiluak (gazta, fruta, arrautzak...).

BRIK ONTZIAK: edari brikak (zukuak, esnea, ardoa...), elikagai brikak (gailetak, tomateak, saldak, esnekiak...).

METALEZKO ONTZIAK: edari-latak, kontserba-lata metalikoak (olibak, zainzuriak, atuna, piperrak, barazkiak...), aluminio-papera, aluminiozko moldeak (flana, aurrez prestatuak...), aluminiozko poltsak (kafea, patata-purea, gailetak...), estalki metalikoak.



EZ dugu edukiontzi horian utziko



Ontzia EZ DEN OBJEKTURIK, plastikoz eginda egon arren.

BERRERABILTZEKO EDUKIONTZIA:

1. Arropa eta osagarriak
2. Etxetresna elektriko txikiak
3. Lapikoak eta zartaginak
4. Jostailuak
5. Gailu elektronikoak
6. Telefono mugikorak



GARBIGUNE/PUNTO LIMPIO:

7. Etxeko hondakin arriskutsuak
8. Kartutxoak eta tonerrak
9. CDak eta DVDak
10. Apurtutako jostailuak
11. Plastikozko hodiak
12. Tuperrak
13. Ontziak eta gomazko eskularruak
14. Erretenak



GAINERAKOEN EDUKIONTZIA:

15. Matxardak
16. Esekigailuak
17. Eskuilak
18. Biberoiak
19. Boligrafoak



gogoratu



- ✓ Ontziek hutsik, uretan pasatuta eta tolestuta egon behar dute.
- ✓ Ez da ontzi bat beste baten barruan sartu behar.
- ✓ Ontziak eraman diren poltsatik berezita utzi behar dira.



edukiontzi urdina

4

PAPERA: egunkariak, aldizkariak, propaganda, fakturak, ordainagiriak, apunteak, erosketa-tiketak, paperezko poltsak (azukrea, arroza...), opari-papera...



SOLO PAPEL Y CARTON
Tu papel es importante



KARTOIA: kartoizko hodiak, kartoizko kaxak (oinetakoak, arrautzak, garbigarria, gailetak...) eta kartoizko bilgarriak (jogurtak, aurrez prestatuak...).



EZ dugu edukiontzi urdinean utziko



EDUKIONTZI HORIA

1. Brikak
2. Poliestirenozko ontziak
3. Aluminio-papera
4. Plastikozko poltsak



GAINERAKOEN EDUKIONTZIA

5. Paper zikina
6. Pixoihalak
7. Paper plastifikatua

gogoratu



- ✓ Kartoizko kaxek tolestuta egon behar dute, eta edukiontziaren barruan sartu behar dira.
- ✓ Paper edo kartoizkoak ez diren elementuak saihestu behar dira (grapak, plastikozko azalak eta hoditxoak, etab.).
- ✓ Papera edo kartoia plastikozko poltsa batean eraman ez gero, poltsatik atera behar da edukiontzira bota aurretik.

5 edukiontzi berdea



BEIRAZKO BOTILAK:

ura, ardoa, freskagarriak, ozpina, zukuak...



BEIRAZKO POTOAK: jogurta, barazkiak, lekaleak, marmeladak...



BEIRAZKO FLASKOAK: kosmetikoak, lurrinak...



EZ dugu edukiontzi berdean utziko



EDUKIONTZI HORIA



1. Metalezko estalki eta txapak.
2. Plastikozko tapoiak.



GAINERAKOEN EDUKIONTZIA



3. Harizpi-bonbillak.
4. Kristalezko ontziteria.
5. Ispiluetako kristalak.
6. Zeramika eta portzelana.

gogoratu



- ✓ Ontziek hutsik eta uretan pasatuta egon behar dute.
- ✓ Ez da ontzi bat beste baten barruan sartu behar.
- ✓ Tapoiak eta estalkiak edukiontzi horian utzi behar dira.
- ✓ Eraman diren poltsa edukiontzi horian utzi behar da.

7a edukiontzi laranja

ETXEKO OLIOA

ERABILITAKO SUKALDEKO LANDARE-OLIOA: Behin hoztu ondoren, olioa plastikozko ontzi batean sartu eta edukiontziotan uzten da.



gogoratu



✓ Ezin da motor-oliorik edo landare-jatorrikoa ez den bestelako oliorik bota.

non?

Agilu, Albaita, Añastro, Burgeta, Doroño, Obekuri, Trebiñu eta Armentiaiko Bentak (autobus-geltokia).

7b edukiontzi gorria



EHUN-GAIAK (arropa eta oinetakoak) ETA ETXEKO GAUSA TXIKIAK

ARROPA, EGUN-GAIAK (eskuoihalak, tapakiak, zapiak).

OINETAKOAK (lokarriak lotuta edo poltsak).

ARROPA OSAGARRIAK (poltsak, bufandak, txanoak...).

EGOERA ONEAN NAHIZ ZAHARRAK



LIBURUAK

JOSTAILUAK

ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK

EGOERA ONEAN ZEIN HONDATUTA



* Egoera onean dauden jantziak eta bestelako objektuak berrerabili egiten dira; hondakin zaharrak edo egoera txarrean daudenak birziklatu egiten dira.

non?



1. Trebiñu (Osasun zentrorako sarbidea).
2. Armentiaiko Bentak (autobus-geltokia).

tamaina handikoa eta etxeko gauzak

8a

Bilketa hileko bigarren ostegunetan egingo da. Aldez aurretik Udalari deitu behar zaio abisua emateko.

zer utzi?

TAMAINA HANDIKOAK: egurrezko altzariak eta metalezko altzariak. Sofak, armairuak, oheak, lastairak, mahaiak, apalategiak eta aulkiak.

GAILU ELEKTRONIKO ETA INFORMATIKOAK: telebistak, ekipamendu informatikoak, musika ekiptoak eta monitoreak.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK (handiak): arropa-garbigailuak, ontzi-garbigailuak, lehorgailuak, mikrouhin-labeak eta labeak.

non?

Herrietan esleitutako eremu guztietan (kartelez seinalatzatuak).

DIA DE RECOGIDA: 2º JUEVES DEL MES, PREVIO AVISO al teléfono 945 360018 antes del martes.

JASOTZEKO EGUNA: HILEKO 2. OSTEGUNA, ALDEZ AURRETIK JAKINARAZITA 945 360018 telefonon asteartea baino lehen.

MANTÉN LIMPIO TU PUEBLO, NO SOLO TU CASA. MANTENDU GARBI ZURE HERRIA, EZ ETXEA BAKARREK.

SI / BAI NO / EZ

Muñidos / Altzariak Sofas / Sofak. Camares / Kamaak. Estantzerak / Apalategiak. TV. Aparatos electrónicos / Gailu elektronikak. Ordenadores / Ordenagailuak. Electrodomesticos / Etxetresna elektrikoak.	Enseres / Otu-hondakinak Sillones, Sakerak, Sesselak / Kama onakak, Sakerak, Sakerak. Cajones, Estantes / Estantak, Sakerak. Camares / Kamaak. Pallets. Baterías de coche / Motorreko bateriak. Baterías para coches o baterías para plantas o similares. Materiales de construcción / Materialak. Cristales, Vidrios / Kristalak, Botoak. Herramientas, partes de vehículos / Herramientak, autoen partak. Aluminio PVP / PVC aluminioa.
--	--

Proyecto de Fomento Educativo y Social de la Universidad de Burgos

PREBILTZA
HERRIETAN
UNIBERTSITATEA

UNIVERSITATIA
BURGOS
KONPAGIA



garbigunea



8b

zer utzi?

- Pinturak, bernizak, disolbatzaileak, itsasgarriak, etab.
- Lanparak eta fluoreszenteak.
- Etxetresna elektriko txikiak.
- Telefono mugikorrak.
- Garbigarri kimikoak.
- Termometroak.
- Material informatikoak: monitoreak, teklatuak.
- Pilak eta bateriak.
- Aerosol toxikoak: intsektizidak, lakak...baita haien ontzi hutsak ere.
- Automobilen motor-olioak, bateriak, iragazkiak, izotz-kon trakoak, etab.
- Argazkigintzako kamerak eta materiala.
- Erradiografiak.
- Herbizidak eta intsektizidak (baita Armentiako Bentetako Kooperatiban ere).
- Inprimagailuen kartutxoak eta tonerrak.
- Jostailu elektrikoak eta elektronikoak (baita berrerabiltzeko edukiontzi gorrian ere).
- CDak, DVDak.
- Obra txikien hondakinak, lauzak, erretenak...
- Kristal eta ispilu hautsiak.

Etxean sortutako hondakin arriskutsuak eta beste hondakin batzuk Miranda de Ebroko garbigunean utz daitezke.



non?

Miranda de Ebroko garbigunea. "Bayas" industrialdea (Montañas kalea, z/g).

9 bestelako bilketak

pilak eta bateriak txikiak



Pila alkalinoa (erabiliena), litiozkoa (mugikorren bateriak), nikelzkoa (zulagailuen eta beste gailu batzuen bateriak), merkuriozko botoi-pila (erloju eta urrutiko aginteenak).



non?

Albaita, Burgeta eta Doroñuko gizarte-zentroetan, Trebiñun (Ihuda Ibaia zentroa), Armentia-ko Bentetan (kooperatiba) eta Uralde urbanizazioan (gizarte-zentroa).

led, bonbillak eta fluoreszenteak



LED, bonbillak, fluoreszenteak, deskargazkoak

non?

- Trebiñu (Ihuda Ibaia zentroa).
- Armentia-ko Bentak (kooperatiba).
- Uralde (gizarte-zentroa).
- Doroñu (gizarte-zentroa).
- Albaita (gizarte-zentroa).
- Burgeta (gizarte-zentroa).



sendagaiak

Iraungitako sendagaiak edo bilgarriak (blister eta kaxak).

non?

Farmazia eta ambulatorioetako SIGRE gunek.



boligrafo zaharrak

Boligrafoak, errotuladoreak, fluoreszenteak, gainmarratzaileak, portaminak, zuzengailuak (zinta, likidoak eta boli erakoak), luma estilografikoak, tinta kartutxoak.

non?

Trebiñuko Ihuda Ibaia zentroan eta Trebiñuko Konderriko Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxean.